"BERBALAGUN" EGITASMOA GARATZEKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA

CPV identifikazioa: HELDUENTZAKO IRAKASKUNTZA-ZERBITZUAK ETA BESTE IRAKASKUNTZA-ZERBITZU BATZUK 80400000-8

LEHENENGOA.- KONTRATUAREN XEDEA.

Agiri honen xedea da Sestaon 2022. eta 2026. urteen artean ***Berbalagun*** izeneko udal zerbitzuaren garapena arautuko duten baldintza teknikoak ezartzea. Hori guztia, baldintza-agiri honetan, administrazio-baldintza partikularren baldintza-agirian eta Sestaoko Udaleko Euskara eta Gazteria ordezkariarekin koordinatuta eta bere jarraibideak betez.

Prozedura ireki bidez esleituko den kontratu honen helburua hau izango da: euskara eskola edo euskaltegietako ingurune formaletik kalera ateratzea eta haren erabilera sustatzea xede dituen *Berbalagun* programa antolatzea eta abian jartzea udalerrian, 2022-2026. epean. Egitasmoaren asmo nagusia, euskaltzaleen mintza- eta harreman-taldeen bitartez, euskararen aldeko hizkuntza ohiturak sustatzea eta euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egitea izango da, batetik, sestaoarren euskara mailaren optimizazioa bultzatzeko eta, bestetik, aurrerantzean euskararen presentzia eta erabilera gizarteko gero eta esparru gehiagotan areagotzeko.

Kontratuak bi urteko iraupena (2) izango du.

Kontratu hau, gehienez ere, beste bi urtez (2) luza daiteke, berariaz.

BIGARRENA.- ZERBITZUAREN JUSTIFIKAZIOA.

Sestaoko Udaleko 2018-2022 ESEP planaren baitan (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, Sestaoko Udaleko Osoko Bilkuran onartua 2018/02/27an), honako neurriak aurreikusten dira lehen helburu estrategikoaren (Euskaren Jabekuntza) 3. esparruan (Euskalduntze eta Alfabetatzea):

"Euskarazko harreman-sareak trinkotzea"

"Euskarazko talde-dinamikak sortzea".

"Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea".

"Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea (Gurasolagun programa)".

Sestaon, euskara ikasten diharduten gazte eta heldu gehienek ikastetxe edota euskaltegietako geletan dituzte euskararekiko harreman ia bakarrak. Egoera horrek, bestalde, eragin handia du ikas prozesuan, nabarmena dela, besteak beste, ageriko moteltasunean eta naturaltasun faltan.

"Berbalagun" gure udalerrian euskararen aldeko hizkuntza ohiturak sustatzeko eta euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi egiteko sortutako egitasmoa izanik, alor horretan aditua den jendeak hartu beharko du programaren ardura.

Sestaoko Udalak ez dauzka kontratuaren xede den zerbitzua eskaini ahal izateko beharko liratekeen baliabide espezializatuak, ez maila teknikoan, ez eta materialean ere. Hori dela eta, eskaini beharreko

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

zerbitzuaren izaera aintzat hartuta, horretan aditua den enpresa bat kontratatu behar da; bestela, ezinezkoa izango litzateke aipatutako zerbitzua garatzea.

Jarduera garatzeko eskumena Toki- araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2.m) artikuluak –"Kultur jarduerak"– jasotzen du.

HIRUGARRENA.- KUDEAKETA EREDUA.

Zerbitzuaren kudeaketa zerbitzu-kontratu bidez egingo da, administrazio-baldintza partikularren agirian jasotzen den moduan.

LAUGARRENA.- ESLEIPENDUNAREN ZERBITZUAK ETA BETEBEHARRAK ZEHAZTEA.

Esleipendunak betebehar hauek bete beharko ditu, ezinbestean:

1. Baldintza tekniko, ekonomiko eta administratiboen orri hauetan ezarritakoaren arabera beteko du kontratua. Halaber, esleipen honen xede den jarduera gauzatzeko, Euskara Sailak emandako aginduak beteko ditu.

2. Programaren helburu zehatz eta estrategikoak hauek dira: 16 urtetik gorako Sestaoko euskaldunen arteko hartu- emanetarako sarea antolatzea, mintza- edo harreman-taldeen bitartez, eta harreman sare honi kultur nahiz aisialdi ekintzetan parte hartzeko aukera eskaintzea. Horretarako, gutxienez 5 laguneko taldeak osatuko dira (Berba Taldeak). Talde horietako bat dinamizatzailea izango da, eta euskararen ezagutza-maila altua izango du (Udalak azken ikasturtean izena eman duten pertsonen zerrenda emango dio enpresa edo erakunde esleipendunari).

   Jarduera osoa euskara hutsean egingo da, eta euskararen erabilera sustatzeko motibagarria izango da.

3. "Berbalagun" egitasmoa 16 urtetik gorako euskararen gutxieneko gaitasun eta ulermen maila duten sestaoar guztiei zuzenduko zaie, eta jasotako zerbitzuagatik ez dute ezer ordaindu beharko.

4. Ikasturte bakoitzean, enpresa esleipendunak harreman- edo mintza-taldeak antolatu, aktibatu eta gainbegiratuko ditu, eta hainbat irizpide hartuko dira aintzat (gaitasun-maila, ordutegi-aukerak, zaletasunak…) taldeak sortzeko orduan; halaber, parte-hartzaileek euskara praktikan jartzeko eta euskaraz bizitzeko kultur nahiz aisialdi ekintza osagarriak ere antolatuko ditu, gutxienez, hilean birritan (tailerrak, irteerak, hitzaldiak, ikastaroak, bisitak, etab.). Programazioari dagozkion erreserbak eta erosketak ere egingo ditu.

   Taldeen maiztasuna, ordutegia, eguna eta lekua, bai eta aurretik aipatutako ekintza osagarrien edukia ere, esleipendunak adostuko ditu partaideekin batera.

5. Programa gauzatzeko, esleipendunak, Sestaoko udalerrian Berbalagun programa aurrera eramateko, gutxienez, dinamizatzaile bat izendatuko du, eta hala jakinaraziko dio udaleko arduradunari, eta programaren garapen egokirako behar den materiala jarriko du antolatzaileen eta interesdunen esku. Dinamizatzaile hori programaren eta talde guztien plangintzaz (diseinua,

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioa) eta dinamizazioaz arduratuko da urtarriletik abendura (edo kontratuak irauten duen denboran), abuztuan izan ezik.

6. Esleipendunak programaren publizitatea egingo du kartel, diptiko, blog, prentsa-ohar edo sare sozialen bidez.

7. Esleipenduna, egokitzat jotzen dituen baliabideak erabilita, ekimenean parte hartzeko interesa dutenen izen-emateez arduratuko da. Horretarako, euskalgintzan aritzen diren erakunde eta entitateekin koordinatuko da, besteak beste, Sestaoko Udal Euskaltegia, Sestaoko AEK, herriko ikastetxeak…

8. Esleipendunak, ekimena hastean, egitasmoaren funtzionamenduari buruzko txostena igorriko dio Euskara Sailari, eta, bertan, mintza-taldeen eta ekintzen kronograma, ordutegi eta abarren berri emango dio.

9. Sestaoko Udalak ez du esleipendunaren esku inolako elementu pertsonalik jarriko, programaren kudeaketa operatiborako beharrezkoa izango den pertsonal teknikoa izan ezik.

10. Garrantzi berezia izateagatik berehalako komunikazioa eskatzen duten egoerak sor daitezkeenean, erakunde esleipendunaren arduraduna izango da Udalaren aurrean baliozko solaskidea.

10. Enpresa edo erakunde esleipendunak programaren edozein zalantza, ezusteko edo aldaketaren berri emango du.

11. Istripurik edo bestelako gorabeherarik gertatuz gero, enpresa edo erakunde esleipendunak abisua emango du, eta, baldintzek ahalbidetzen badute, kasu bakoitzean jarduteko jarraibideak jakinaraziko zaizkio. Ezinezkoa bada, bere esperientziaren eta prestakuntzaren arabera jardungo du.

11. Parte-hartzaileek arauak behin eta berriz urratzen badituzte, horren berri emango da, behar diren neurriak hartzeko.

10. Esleipendunak edozein arrazoirengatik gerta daitezkeen 7 egunetik gorako bajak berehala bete eta bere gain hartu beharko ditu, eta langileen ordezkapenaren berri ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaio Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Kirol arloari.

11. Enpresa esleipendunak Sestaoko Udalak erabaki ditzakeen kontrolak onartuko ditu. Horrez gainera, jardueraren garapenari lotuta eskatu lekiokeen informazio eta agiri oro aurkeztu beharko ditu.

Udalak programan izango duen presentzia, bai eta programaren jarraipena eta parte-hartzea ere, Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Kirol arloko langileen esku egongo da, eta, bereziki, Euskara Sailaren berezko programen arduradun diren teknikarien esku.

Halaber, Udalak dagokion eskumena izango du zerbitzuaren prestazioa kontrolatzeko, baliabide materialak behar bezala erabiltzen direla eta zerbitzuaren erabiltzaileei tratu egokia ematen zaiela bermatzeko.

12. Jarraipen Batzorde bat eratuko da; hala, esleipendunak behar beste bilera egingo ditu bai Euskara Saileko teknikariekin, bai “Berbalagun” egitasmoaren erakunde sustatzaileekin, ekintzak eta jardueren programa koordinatzeko, iradokizunak aurkezteko, eta, azken batean, zerbitzua optimizatzeko.

12. Esleipendunak eratutako Jarraipen Batzordea kudeatuko du: deialdiak, aktak, zuzenketak, iradokizunak…

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

13. Esleipendunak programaren jarraipena egingo du ekimenak dirauen bitartean, eta, ekimena bukatzean, ebaluaketa-memoria bidaliko du Euskara Sailera. Honako hauek jasoko ditu memoriak:

- Koordinatzailearen identifikazio datuak.
- Helburuen jarraipena eta betetze maila.
- Taldeen kopurua eta osaera genero eta gaitasun mailaren arabera banatuta.
- Maiztasuna, lekua eta ordutegia.
- Izaera bereziko taldeen zehaztapenak (merkatariak, gurasoak, gazteak…)
- Partaide guztien identifikazio datuak.
- Programari lotutako ekintzak, ikastaroak, irteerak eta bestelakoen kopurua, egutegia, lekua eta partaide kopurua zehazturik.
- Egindako ekintzen inguruko parte-hartze datuak eta taldekideen asistentzia datuak.
- Ikasturtean izandako altak eta bajak.
- Partaideen balorazioak zein koordinatzailerena ere jasoko dira.
- Hurrengo edizioetan aplikagarriak izan litezkeen proposamenak.

13. Esleipendunak jardueretan zehar eragin okerra izan dezakeen gertaera oro jakinaraziko dio Sestaoko Udaleko Euskara Sailari, idatziz, Sailak behar den erabakia har dezan.

14. Kontratua kontratistaren arrisku eta benturara gauzatuko da.

15. Esleipendunak zerbitzua emateko jarduerek eragindako kalte eta galerak ordaintzeko betebeharra izango du.

16. Esleipendunak honako ardura hauek ditu: egindako lanek eta emandako zerbitzuek kalitate teknikoa izatea eta, kontratua gauzatzean, eginbeharren bat ez betetzeak, hutsegiteek, metodo desegokiek edo ondorio okerrek Administrazioari zein hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioengatik erantzutea. Esleipendunak kasu bakar batean ez du erantzun beharrik izango: akatsak Administrazioak emandako aginduen edo ezarritako baldintzen ondorio zuzena direnean.

17. Esleipendunaren ardura izango dira zerbitzua emateko beharrezko izan daitezkeen administrazio-lizentzia edo – baimenak, eta bere izenean eskatu beharko ditu.

18. Esleipendunak, lansari osagarririk jasotzeko eskubiderik ez duela, kontratua ongi garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, hala nola, lan- edo jarraipen-bileretara joatea.

19. Esleipendunak kontratatutako zerbitzuen ondorioz lortzen dituen datu guztiak isilpekoak izango dira, eta, beraz, ezin izango ditu inola ere zabaldu. Zabalduz gero, kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio bai Sestaoko Udalari, bai isildu beharra hausteak ekarritako kalte eta galerek erasandakoei.

20. Kontratua betetzeko beharrezkoa baldin bada esleipendunak trataera automatizatua duten datu pertsonalak erabiltzea, datu pertsonalen babeserako indarrean dauden lege-arauetan ezarritakoa bete beharko da.

Esleipendunak ezin izango ditu kontratuagatik eskuratzen dituen datu pertsonal automatizatuak kontratuarenaz beste xedearekin erabili, ez eta hirugarren batzuei utzi ere, gordetzeko baino ez bada ere.

Kontratuari dagokion zerbitzua burututa, erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira, Sestaoko Udalak, agian gerora enpresa horrek beste zerbitzu batzuk eman ahal izango dizkiola

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

ikusita, gordetzeko baimen idatzia ematen ez badio, behintzat; kasu horretan, datuak bost (5) urtez gorde ahal izango ditu, segurtasun-neurri egokiak beteta.

21. Esleipendunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurri egokiak aplikatu beharko ditu. Ildo horretatik, honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan:

- Hizkuntzen erabilera ez-sexista egitea ahoz nahiz idatziz emandako mezuetan.
- Kontratua egikaritzen den bitartean erabiliko diren irudietan emakume eta gizonen presentzia orekatu eta ez- estereotipatua bermatzea.
- Edonorentzat erakargarriak izan daitezkeen jarduerak programatzea, bereizkeria saihestuta.
- Hezkidetza sustatuko duten materialak erabiltzea.

Eginbehar honek funtsezko betebehar- izaera izango du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 211. artikuluak xedatzen duena aitzat hartuta, eta hori ez betetzeak kontratua suntsiaraztea eragin dezake.

22. Programa gauzatzeko behin betikoz arduratuko den dinamizatzailearen datu pertsonalak, jardueran daukan esperientzia eta prestakuntza ziurtatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko ditu esleipendunak, horien artean, euskararen ezagutzan, gutxienez, C1 maila edo baliokidea duela egiaztatzen duen agiria, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzekoa).

23. Halaber, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzeari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak xedatzen duenari jarraikiz, nahitaezko eskakizuna izango da, adingabeekin ohiko harremanak izatea eskatzen duten lanbide eta jardueretara jo ahal izateko eta horietan jarduteko, epai irmo baten bidez espetxe-zigorrarekin kondenatua izan ez izana sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituengatik – mota horretako delituen artean daude sexu-eraso eta -abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeak galbideratzea–, ez eta pertsonen salerosketa-delituengatik ere. Horretarako, aipatutako lanbidea edo jarduera bete nahi duten pertsonek sexu- delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, delitu horiengatik zigorrik jaso ez dutela egiaztatzen duena.

Ondorioz, programaren ardura hartuko duten langileek sexu-delitua egiteagatiko aurrekari penalik ez dutela egiaztatzen duten agiriak ere aurkeztuko dizkio esleipendunak Sestao Udalari.

24. Esleipendunak Laneko Segurtasun eta Osasunari buruzko lege- arauak bete beharko ditu, bereziki, 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, 39/1997 EDa eta berau garatzen duten gainerako araudiak.

Sestaoko Udaleko Laneko Prebentzio eta Osasun Zerbitzuak, garatu beharreko jardueretan zehar, dagokien segurtasun- eta osasun-baldintzak bermatuko dituzten behar besteko jarduketa eta agiri eskatu ahalko ditu, eta esleipendunak proposatutako edo berak egokitzat jotako neurriak ezartzeko ardura izango du. Halaber, enpresa horretako langileen osasunaren babesa bermatu beharko dute neurriok.

25. Esleipendunak SARS-CoV-2 (COVID-19) delakoari aurre egiteko ezarritako segurtasun-, prebentzio- eta jarduketa-neurri guztiak beteko ditu.

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Era berean, esleipendunari dagokio langileei laneko arriskuen berri ematea, arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza ematea eta beharrezkoak izan litezkeen Norbera Babesteko Ekipamenduak (NBE) haien eskura jartzea.

26. Prestazioa ez bada behar bezala betetzen, aplikagarria izango da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 192. artikulua.

27. Egitasmoa kudeatzeko esleipendunak, gutxienez, dinamizatzaile bat kontratatu, eta Gizarte Segurantzan alta emango du.

28. Ez da lan-loturarik egongo kontratua gauzatzen duen dinamizatzailearen eta Sestaoko Udalaren artean. Hortaz, dinamizatzailea berariaz egongo da enpresa esleipendunaren agindupean, bai zuzendaritzari dagokionez, bai antolaketari dagokionez, legez ezarritako arlo eta ordena guztietan. Horrenbestez, esleipenduna izango da erantzule bakarra, eta behartuta egongo da kasuari ezargarri zaizkion legezko xedapen guztiak betetzera, batez ere kontratazioari, gizarte- segurantzari, laneko arriskuen prebentzioari eta zergari buruzkoak; hala bada, aipatutako dinamizatzaileak ez du inolako loturarik izango, ez juridikorik, ez lan-arlokorik, Sestaoko Udalarekin, kontratuaren arabera egokiak diren eta legeak edota kontratuak agintzen dituzten kontrolatzeko eta ikuskatzeko gaitasunak alde batera utzita.

29. Kontratuaren xede diren lanak egin dituzten langileak ez dira, inondik inora, Sestaoko Udaleko langile bihurtuko.

30. Baldintza-agiri honetan xedatutako edozein eginbehar betetzean sor litezkeen eragozpen edo atzerapenen aurrean esleipendunak aldaketarik egin behar balu, Sestaoko Udalari jakinarazi beharko lioke aldez aurretik, proposatutako aldaketa ontzat jo dezan.

31. Ezinbesteak bultzaturik edo aparteko arrazoiengatik ekimenaren aurrez aurreko mintza-taldeak edota jarduerak bertan behera utzi beharko balira, esleipendunak jarduera eta bilera telematikoak eman daitezen ahalbidetu beharko du, zerbitzua bere osotasunean bermatu ahal izateko. Hori posible ez balitz, Sestaoko Udalak ez du eman ez den zerbitzua ordainduko.

BOSGARRENA - TALDE AURREIKUSPENA ETA PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUA

Aurreko urteetako bide berari jarraikiz, 5 eta 16 lagun arteko taldeak osatuko dira astean behin-edo eta, gutxienez, ordubetez elkartu eta euskaraz aritzeko. Nolanahi ere, aukera emango zaie astean behin baino gehiagotan elkartzeko, bai eta ordu batetik gorako bilerak egiteko ere.

Horrez gainera, eta Baldintza Teknikoen Agiri honetako IV. atalak dioen legez, taldeetako partaideek euskara praktikan jartzeko, harreman sarea handitzeko eta euskararekin gozatzeko, gutxienez, hilean birritan, kultur eta aisialdi ekintza osagarriak antolatuko dira, taldekideen behar eta gustuetara egokituak, hala nola tailerrak, txangoak, solasaldiak, mintzodromoak… (aurrez aurrekoak nahiz telematikoak).

Izan ere, SARS-CoV-2 (COVID-19) delakoak eragindako ezohiko egoera aintzat hartuta, talde eta jarduera guztiz telematikoak ere egitea aurreikusten da.

Taldeetako partaide guztiek ardura bera izango dute; ez da egongo irakasle- ikasleen arteko harremanik, kideen artekoa baizik.

Aurreko urteko ildo berari jarraikiz, honako hauek dira 2022. urtean Sestaon aurreikusi daitezkeen taldeak eta partaide kopurua: 70 partaide inguru, 10 mintza-taldetan.

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

SEIGARRENA – HIZKUNTZA BALDINTZAK

Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8. artikuluak xedatutakoaren arabera,

Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza- ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaketa moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren baldintzak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:

a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki- erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.
b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.
c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren administrazio- titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.

Kontratu honen izaera aintzat hartuta, enpresa esleipendunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Programaren xede diren jarduera guztiak euskara hutsean emango dira.
- Esleitutako zerbitzua emateko programaren parte-hartzaileei, hezkuntza zentroei, administrazioari… zuzendutako idatzi guztiak (inprimakiak, jakinarazpenak, oharrak, errotulazioa, azalpenak...), behintzat, euskaraz egongo dira idatzita.
- Programaren bukaeran, Sestaoko Udalari bidali beharko zaion ebaluazio- eta balorazio-memoria euskara hutsean idatziko da.

ZAZPIGARRENA.- KAUDIMEN TEKNIKOA

- Berbalagun zerbitzua prestatzeko ardura izango duen koordinatzaile-dinamizatzaileak gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatu beharko du Berbalagun edo antzeko jardueretan. Ziurtatzeko modua honakoa izango da: kontratatu duen erakundeko zuzendaritzak izenpetutako ziurtagiria, lan egindako tokia, denbora eta betetako funtzioak zehaztuko dituena.

- Programa behar bezala garatzeko, dinamizatzaileak, gutxienez ere, euskararen C1 gaitasun-maila edo baliokidea duela egiaztatu beharko da, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren arabera (euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzekoa).

ZORTZIGARRENA.- KAUDIMEN EKONOMIKOA

Urteko negozio-bolumenak edo kontratuari dagokion eremuko urteko negozio- bolumenak –eratze-daten arabera edo enpresaburuaren jarduerak hasi ziren edo eskaintzak aurkeztu ziren dataren arabera, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietatik ekitaldi onenari dagokionak– lizitazio-iragarkian edo prozeduran parte hartzeko gonbidapenean eta kontratuaren baldintza-agirietan eskatutako zenbatekoa –edo, haren faltan, erregelamenduz ezarritakoa– berdindu edo gainditu beharko du. Eskatzen den urteko gutxieneko negozio-bolumena ez da kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi halako baino handiagoa izango, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik, nola baitira obren, zerbitzuen edo horniduren izaerari lotutako

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

arrisku bereziekin lotutakoak. Kontratazio-organoak baldintza hori ezartzeko arrazoi nagusiak adieraziko ditu kontrataziorako baldintza-agirietan edo 336. artikuluan aipatzen den txosten berariazkoan**.**

Kontratu bat sortatan zatitzen denean, irizpide hau sortetako bakoitzari dagokionez aplikatuko da. Hala eta guztiz ere, kontratazio-organoak sorta-multzoak erreferentziatzat hartuta ezarri ahalko du lizitatzaileei eskatzen zaien urteko negozio-bolumen gutxienekoa, baldin eta aldi berean gauzatu beharreko sorta bat baino gehiago adjudikatzen bazaio adjudikaziodunari.

BEDERATZIGARRENA.- ZERBITZUAREN IRAUPENA ETA KOSTU EKONOMIKOA

Kontratua urte birako izango da, 2022an kontratua esleitzen denetik 2023ko abenduaren 31ra arte, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.
Zerbitzuaren kostu ekonomikoari dagokionez, alde batetik, lizitazio-tasa adierazi behar da, eta, bestetik, prezioari eragin diezaioketen berrikuspenak.

9.1. LIZITAZIO MOTA

Urtean zehar eman beharreko ordu kopurua kontuan hartuta: taldeetan eman beharreko orduak, publizitatea, matrikulazioa, aparteko jarduerak (ikastaroak, lantegiak, txapelketak, irteerak eta abar) urteko kostua **BEDERATZI MILA EUROTAN (9.000,00 EURO**) zenbatesten edo estimatzen da.

Zerbitzu honen prestazioan BEZ salbuespena ezartzen da, azaroaren 9ko 1994/7 Bizkaiko Foru arauaren 20. artikulua. Bat. 9. atalaren arabera.

Jardueraren iraupena bi urterako aurreikusten denez, kontratuaren aurreikusitako balio zenbatetsia (estimatua) **HAMAZORTZI MILA EUROKOA (18.000 EURO**) da (9.000 x 2).

Beste bi urterako aurreikusitako luzapena onartzen bada, hirugarren eta laugarren urteetarako azken zenbatekoa **BEDERATZI MILA EUROKOA (9.000,00 EURO**) izango da **urte bakoitzeko**.

Kontratu honen eraldaketa egitekotan, gehienez ere % 20koa izan daiteke, eta esleipendunaren lan-karga oso nabarmen handitzen den kasuetan bakarrik gertatuko litzateke; adibidez, taldeen kopurua kontratu honen bosgarren atalean aurreikusitakoaren bikoitza izango balitz.

Era berean, azpimarratzen da gastu hori baimentzeko kreditu nahikoa dagoela **Euskara Sailaren aurrekontu-partidan**, hau da, honako programa, **sailkapen ekonomiko eta izendapen hauetan**: **3350.22606.**

Zerbitzua esleitzeko irizpideak eta balorazioa

a) Zerbitzua eskaintzeko prestazioa edo proiektua::…… 0-35 puntu

Helburu orokorrak eta espezifikoak (aurkeztutako proiektuaren eta proposatutako jarduera bakoitzaren hizkuntza- eta gizarte-helburu orokorrak zehaztuko dira). Ebaluazio- eta kontrol-irizpideak (ezarritako sistema eta dokumentu-eredua). 5 puntu.

Funtzionamendu- eta dinamizazio-mekanismoak. Lan- eta partaidetza-metodologia (besteak beste, talde profesionalaren jarduketa-, koordinazio- eta funtzionamendu-protokoloa baloratuko da). 10 puntu.

Jardueren programaren kalitatea, dagokion kronogramarekin. 20 puntu. Atal honetan ikasturte bateko programazioa prestatu beharko da, programa dinamizatzeko jarduerak eta osatzen diren taldeei zuzendutako

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

jarduera zehatzak (tailerrak, irteerak, txangoak, eskulanak, jolasak, ikastaroak…) jasoko dituena. Proposatutako ekintzen zehaztapen-, definizio- eta aniztasun-maila baloratuko da.

b) Hobekuntzak:.....: 0-25 puntu
Dinamizatzaileak animatzaile soziokulturalaren goi-mailako titulua edukitzea: 10 puntu
Dinamizatzaileak aisialdiarekin eta taldeen dinamizazioarekin lotutako ikastaroa egin izana (>100 ordu):5 puntu
Dinamizatzaileak euskarako C2 titulua edukitzea.....: 5 puntu
Hilero bi ekintzez gain, hiru hilean behin ekintza osagarri bat antolatzea.....: 10 puntu

c) Eskaintza ekonomikoa:..... 0-40 puntu

Nolanahi ere, eta lehiakideak egokitzat jotzen dituen analisi osagarriak alde batera utzi gabe, azterketa ekonomikoa kapitulu hauetan banatuta aurkeztuko da:

- Eskulana (oinarrizko soldatak, antzinatasuna, mota guztietako plusak, zenbatetsitako aparteko orduak, gizarte-aseguruak, eta ekonomikoki ebalua daitekeen beste edozein sortzapen edo lan-eskubide, enpresa lehiatzaileari aplika dakiokeen araudi orokor edo sektorialean jasotzen dena).
- Enpresaren gastu orokorrak, finantza-gastuak, zerga-kargak (BEZ kanpo), legez ezarritako Administrazioaren tasak.
- Enpresa-etekina.
- Balio erantsiaren gaineko zerga.

Aurreko kapituluak, gainera, hura osatzen duten unitateetan bereiziko dira.

9.2 PREZIOAREN ERREBISIOA

Kontratu honek esleitzen duen prezioa ez da aldatuko, eta ez da inolako berrikuspen, igoera edo eguneratzerik egingo. Ez eta administrazio-kontratazioari aplikatu beharreko arauetan jasotako arrazoiengatik ere, kontratatutako zerbitzua osatzen duten elementuen kostuak eta, bereziki, langileen soldatak aldatuko balira.

Hemen adierazitakoa aplikatuko da, bai hitzarmenak irauten duen urtean, bai eta, azkenean, luzatzeko aukera aurreikusten bada ere.

HAMARGARRENA.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Ikasturte bakoitza hasi aurretik, proposamen-programa bat aurkeztuko da, eta memoria bat ikasturte bakoitzaren amaieran. Proposamen programak honako hau hartuko du barne:
1.- Lan-plan bat, kontratuaren xedearen eta prezioaren barruan egin beharreko lan nagusiak jasoko dituena, udalerrian euskararen erabilera sustatzeko, Udaleko Euskara Planaren helburuekin bat etorriz.
2.- Kontratuaren xedearen eta prezioaren barruan egin beharreko jarduera osagarriak, udalerrian euskararen erabilera sustatzeko, Udaleko Euskara Planaren helburuekin bat etorriz.
3.- Hobekuntza gisa baloratuko dira dinamizatzaileak taldeekin gutxienez hilabetean behin harreman pertsonala izatea, gurasoentzako elkarrizketa-talde espezifikoak sortzea eta mantentzea, eta gazteentzako elkarrizketa-talde espezifikoak sortzea eta mantentzea.

Azken memoria kontratuaren iraupen osoa amaitu baino gutxienez 15 egun lehenago aurkeztu beharko da.

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-ef67-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Enpresa edo erakunde esleipendunak bere proiektuaren proposamenaren edukia eta memoriak Udaleko Euskara Sailak ezarritako jarraibideetara egokituko ditu, dokumentu horiek Sestaoko Udalak dirulaguntzak eskatzeko edo justifikatzeko baliozkoak izan daitezen.

Era berean, hiru hilean behin txosten bat egin eta aurkeztuko da, modu laburrean balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa eginda (asistentzia, egindako jarduerak, gorabeherak eta gainerako gai esanguratsuak), eta asteko txosten bat egingo da, proiektuan emandako denboraren banakapena jasotzen duena.

Dokumentu horiek guztiak paperean eta euskarri informatikoan emango dira.

HAMAIKAGARRENA – ORDUTEGIA ETA ZERBITZUAREN EGUTEGIA

« Berbalagun » programa kudeatzeko zerbitzua 2022. urtean kontratua sinatu eta hurrengo hilabeteko lehen egunean hasiko da, eta memoria entregatzen denean amaituko da. Memoria hori Sestaoko Udaleko erregistro orokorrean erregistratu beharko da. Era berean, 2022. urteko Berbalaguneko programazioa 2022ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2022ko abenduaren 31n amaituko da, eta hala izango da kontratuaren urte bakoitzean.

Ordainduko den kopurua 2022. urtean kontratua hasten den dataren arabera egingo da, hau da, urte osorako zenbatekoa kontuan hartuta, kalkulu proportzionala egingo da.

HAMABIGARRENA. EBALUAZIO MEKANISMOAK.

Sestaoko Udaleko Euskara Arloak kontratu honen xede diren jardueren etengabeko jarraipena egingo du, eta enpresa lizitatzaileak horri buruzko txostenak aurkeztu beharko ditu, horretarako egindako egutegiaren arabera. Halaber, sei hilean behin txosten bat aurkeztu beharko du: bata, udako oporraldia baino lehen, eta, bestea, Gabonak baino lehen. Horietako bakoitzean, egindako lanak, hobekuntza-ekintzak eta etorkizuneko proiektuak zehaztuko dira.

HAMAHIRUGARRENA. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Esleipendunak kontratu hau gauzatzearen ondorioz lortzen duen informazioa konfidentziala da, eta informazio hori gauzatzeko bakarrik erabili ahalko da.

Erabilitako datuak, datu pertsonalak diren aldetik, Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako, eta norberaren irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/82 Lege Organikoaren eta Izaera pertsonaleko datuen tratamendu automatizatua arautzen duen urriaren 29ko 5/92 Lege Organikoaren xedapenen mende egongo dira. Esleipenduna arau horien jakitun da eta bere burua behartzen du arauok errespetatzera, bere izenean eta kontratatzen dituen edo haren mende dauden langile guztien izenean. Horretarako, dagozkion kontratuetako konfidentzialtasun-klausulak sinatzen dira.

Administrazioak esleipendunaren esku jartzen dituen informazio, dokumentazio, programa informatiko eta gainerako bitarteko edo datu guztiak Administrazioaren jabetzakoak dira, eta kontratatutako lanak egiteko behar den neurrian baino ezingo dira erabili edo erreproduzitu. Esleipendunak konpromisoa hartzen du, kontratua bukatzean, horiek itzuli edo suntsitzeko.

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-efd7-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.

Sestaoko Udala
Ayuntamiento de Sestao
(BIZKAIA)

Alaitz Armendariz González
Sestaoko Udaleko euskara teknikaria

Dokumentu honen paperezko kopia inprimatua kopia kautotutzat hartuko da. / La impresión en papel de este documento tendrá la consideración de copia auténtica.
Egiaztapen Kodea / Código de Verificación {77a41809-efd7-4898-acb7-0df17de804aa} Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado electrónicamente.